



AGINDUA, 2025eko UZTAILAREN 15EKOA, INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNEKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILAREN 2025., 2026., 2027. eta 2028. URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN BAITA

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua arabera, besteak beste Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek aurretik planifikatu beharko du bere dirulaguntza-jarduera, plan estrategiko baten bidez.

Agindu hori betetzeko, plan hau sailaren sustapen-politiken plangintzarako tresna da, EAEko Gobernu Programaren konpromisoen barruan ardazturik (2024-2028 programa).

Plan hau egiteko, 2024-2028 Gobernu Programan eta indarrean dauden dirulaguntzen programetan definitutako interes publikoak aztertu dira eta plan honen indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin erkatu dira.

Ohartarazi behar da, dena den, Planak izaera pragmatikoa duela, legealdi honetarako 2024-2028 «Ongizatean Hazi» Gobernu Programaren (XIII. Legealdia) jardunen esparru orokorraren barruan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2030erako Estrategian. Hori horrela, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna dirulaguntza-lerroak praktikan jartzeak baldintzatzen du, egungo aurrekontu-bitartekoak kontuan izanda, besteak beste.

Horrenbestez, sailaren gainerako jardunen antzera, sailaren dirulaguntzen plan estrategikoak honako hauek ditu erronka eta ardatz estrategiko nagusi:

- Hazkunde- eta ongizate-eredua
 - Industria
 - Berrikuntza
 - Digitalizazioa eta adimen artifiziala
- Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna
 - Trantsizio energetikoa
 - Ingurumena
 - Ekonomia zirkularra

Planaren indarraldiko urte bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 6.3 artikulua arabera egiten den dirulaguntza-programen ebaluazioaren barruan,





Planaren betetze-maila ebaluatuko da.

Horrela, ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua (Gobernu Legea) eta ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, emandako eskumenak baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Eranskin gisa ageri den «*Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren 2025., 2026., 2027. eta 2028. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa*» onartzea.

Bigarrena.- Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren 2025., 2026., 2027. eta 2028. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa dagozkion hedabide ofizialetan argitaratuko da, eta, hala badagokio, sailak www.euskadi.eus webgunean duen atalean ere bai.

Hirugarrena.- Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak ematen dituen dirulaguntzak plan horretan ezarritakora egokitu beharko dira, eta aurrekontu nahikoa badago soilik eman ahal izango dira.

Aldian-aldean, Plana berrikusi ahal izango da, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko titularren agindu baten bidez. Agindu horren arabera, plan horren aurreikuspenak egokitu ahal izango dira dirulaguntzen deialdia egiteko unean dauden egoera materialetara eta aurrekontuetara, eta neurri edo jardura berriak ere barne hartu ahal izango ditu.

Laugarrena.- Planaren indarraldiko urte bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 6.3 artikulua arabera egiten den dirulaguntza-programen ebaluazioaren barruan, Planaren betetze-maila ebaluatuko da.

Bosgarrena.- Indargabetuta geratzen da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2024., 2025. eta 2026. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren jarduketa-eremuei buruzko zatian.

Vitoria-Gasteiz.

MIKEL JAUREGI LETEMENDIA
INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUNEN SAILBURUA
(Elektronikoki sinatuta)



ERANSKINA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUNAREN SAILAREN 2025., 2026., 2027. eta
2028. URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

1.- Planaren justifikazioa.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikuluan ezartzen du dirulaguntzen plan estrategiko bat edukitzeko betebeharra dagoela. Plan horretan, sailaren dirulaguntzei dagokienez, horiek emanda lortu nahi diren xedeak eta ondorioak, esleitzeko epeak, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak, eta planaren jarraipena egiteko behar diren ekintzak eta adierazleak (helburuei loturikoak) identifikatu beharko dira, aurrekontu-egonkortasuneko xedeak betez betiere.

Planak izaera programatikoa du, eta haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Lau urteko indarraldia izango du, non eta, barne hartzen dituen jarduketan izaera dela-eta, epe luzeagoa behar ez den.

Sailen jarduera orientatzeko, plan hori izateko betebeharra bete dezaten, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 1/2015 zenbakiko zirkularra onartu zuen, dirulaguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, zenbait neurri biltzen dituen plan horiek egin eta onartzeko.

Zirkular hori betetzeko egin da Plana, hartan ezarritako edukiarekin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean eskatutakoarekin.

2.- Aplikazio-eremua.

Planak Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren dirulaguntzen inguruko jarduera jasotzen du.

Planaren denbora-esparrua 2025., 2026., 2027. eta 2028. aurrekontu-ekitaldiak dira.

3.- Planaren edukia.

Gobernu Programaren konpromisoei lotutako ardatzetako bakoitzari jarraikiz, planak aurreikusten diren dirulaguntza-jardunak zein programatan txertatzen diren jasotzen du.

Horren ondoren, laburpen gisa identifikatzen ditu dirulaguntza-programa guztiak egikaritzeko aurreikusitako kostuen datu globalak, programa horiek sailak bere egituran dituen antolakunde-unitateekin lotuta.

Azkenik, Planak fitxa bat biltzen du dirulaguntza-programentzat, eta bertan bilduko ditu helburuak, ekintzak eta adierazleak, aurreikusitako denbora-esparruarekin, helburu dituen sektoreak, dirulaguntzak emateko prozedura, beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publikoaren ehunekoa, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartuko duten jarduketak eta horien deskribapena ere.

4.- Erronka estrategikoen eta helburuen identifikazioa.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bat dator Euskadi 2024-2028 XIII. Legealdiko Gobernu Programaren konpromisoekin, eta konpromiso horien artean, sailaren jarduketa-eremuari dagozkionekin, hain zuzen, honako hauekin:

4.1. Hazkunde- eta ongizate-eredua

4.1.1. Industria

EAEk ekonomia modernoa, dinamikoa, garatua eta jasangarria bultzatzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzen ditu, kalitatezko enpleguaren bidez aberastasuna sortu eta banatzeko, zerbitzu publiko sendoei eusteko eta gizarte-politikak garatzeko.

Eredu horren gobernantza, beraz, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko eta erakundeen arteko lankidetzak estuan oinarritu da; eta horren aldeko apustua egiten jarraituko da. Era berean, ekintza-tresnak modernizatzen eta hobetzen jarraituko dugu.

Europak jasangarritasunerantzko norabide argia hartu du, baita arlo ekonomikoan ere. Eta guk bat egiten dugu bide horrekin. Hartara, bide horretan, jasangarritasuna enpresen bereizketarako eta lehiakortasunerako elementu bihurtu da. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak lehiakortasun jasangarritantz bideratuko du EAEren berrindustrializazioa, funtsezko 3 trantsizio hauen inguruan: energetikoa, soziala eta teknologiko-digitala. Era berean, hiru trantsizio handi horiek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuko ditu, trantsizio industrial berritzeko eta eraldatzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzak laguntza emango die baliabide-erabilera eta

ingurumen-aztarnaren sorkuntzan jasangarriagoak izatearen alde apustu egiten duten enpresei eta proiektuei. Era berean, gizarte-konpromisoa bultzatuko du hainbat arlotan, hala nola kalitatezko enpleguaren sorkuntzan, bidezko ordainsarietan eta giza baliabideen zainketa eta garapenean, eta enpresa-ondorengotzan, bai eta ingurunearekiko elkarreraginean ere, industrian eta zerbitzu aurreratuetan BPGaren % 40 gainditzeko asmoz.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

- EAEn erroturiko 5.0 industria eta 2028rako Industria Plana.
- Industria-lurzorua berreskuratzea.
- Kalitatezko enplegua sortzeko eta mantentzeko inbertsioa.
- EAEko industriaren trantsizio energetikoa.
- Ekintzailletza babestea.
- Industria- eta enpresa-garapenerako azpiegitura.
- Enpresak nazioartekotzea.

4.1.2. Berrikuntza

Berrikuntzaren aldeko apustua EAEn nortasun-ikurra da. Herrialdeen garapen ekonomikoaren funtsezko adierazle bat da, eta haien produktibitatea eta lehiakortasuna baldintzatzen ditu. Horrez gain, hazkunde jasangarria lortzeko faktore erabakigarria da.

EAE Europan berrikuntza maila handia duten eskualdeen artean dago. Helburua hazten jarraitzea da, eta lurraldea berrikuntza-arloan Europako eskualde liderra izatea (RIS adierazlea, *Regional Innovation Scoreboard*).

Berrikuntzaren erronkari erantzuteko, ahalegin publiko-pribatu bateratua egin behar da, eta epe luzerako estrategia bat finkatu, EAE Europako berrikuntzaren gune bihurtzeko lehentasunezko helburuarekin. Hala, hazkunde ekonomikoa eta ongizatea bultzatuko dira, baita kalitatezko enpleguak sortzea ere.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

- I+G+B esparruko inbertsioak handitzen jarraitzea.

- Enpresa-berrikuntzari laguntzea, batez ere enpresa txiki eta ertainetan.
- Berrikuntzarako eskaintza teknologikoa indartzea.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren eta Erosketa Publiko Berritzailearen nazioartekotzea indartzea.
- Erakundeen arteko lankidetzak, berrikuntza-arloko inbertsioak sustatzeko.

4.1.3. Digitalizazioa eta adimen artifiziala

Digitalizazioak aurrerapen nabarmena izan du EAEn, eta gure gizartea eta ekonomia modernizatzen lagundu du. Digitalizazioak zerbitzu publiko eta pribatuen efizientzia hobetu du, berrikuntza bultzatu, eta gure lehiakortasuna indartu. Hala ere, erronka garrantzitsuei ere egin behar diegu aurre, hala nola arrakala digitalari, batez ere landa-eremuetan, eta zibersegurtasuna bermatzeko beharrari.

Teknologiak eskaintzen duen aukera hori aprobetxatzeko, ezinbestekoa da digitalizazioaren aldeko gure apustua bizkortu, eta digitalizazioa herri mailako funtsezko estrategia bihurtzea eta EAE azpiegitura eta zerbitzu digitalen hub bihurtzea. Lehiakortasun ekonomikorako eta garapen sozialerako aukera bat.

Gure apustua EAE lurralde ireki eta adimendun gisa garatzea da, datuen kudeaketa adimenduna eta etikoa bermatuta, adimen artifizialak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatuta, herritarren eta Administrazioaren arteko harremana hobetuta, eta lankidetzak eta jasangarritasuna sustatuta.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

- EAE digitalagoa izateko lan egitea.
- Digitalizazioaren arloko aurrerapausoak herritarren eta enpresen zerbitzura jartzea.
- Jarduera digital etiko eta eleaniztuna ziurtatzea.
- Eta adimen artifiziala baliatzea, ongizate maila handiagoa lortzeko.

4.2. Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna

4.2.1. Trantsizio energetikoa

Berotze globala gero eta intentsitate handiagoz pairatzen ari garen errealitate egiaztagarria da. Ondorio negatiboak eragiten ditu EAEko ehun sozial eta ekonomikoan. Datuek erakusten dutenez, atmosferako berotegi-efektuko gas-emisioen ondorioz, batez besteko tenperatura industriaurrekoa baino gradu bat gorago dago gaur egun. 2045ean karbono-neutraltasuna lortzeko hartutako helburu handinahiak direla eta, erantzuna atzeraezina da.

Erantzunak azkarra eta eraginkorra izan behar du. EAEko ekoizpen-ehunak trantsizio ordenatua eta koherentea behar du, sektore industrial, teknologiko eta energetikoarekin koordinatua; eta eraldaketa hori aukera gisa aprobetxatu behar da, garapen ekonomiko arduratsua mantentzeko eta enplegu berriak eta hobeak sortzeko.

EAEk duela gutxi onartutako Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren Legearekin hasi du legegintzaldia. Araudi horrek ingurumenarekin lotutako helburu handinahiak ditu eta, aldi berean, EAEren energia-autonomia handitzea du helburu, sektore hori horrenbeste baldintzatzen duten gorabehera geopolitikoak saihesteko. EAEtik autokontsumo partekatuen aldeko apustua egin behar dugu, energiaren ekoizpenari etekin handiena ateratzeko eta balio-katean sartu ezin diren hondakinak aprobetxatzeko, eta balorizazio energetikoaren bidez energia sortzearen.

Trantsizioaren kostuak ezin dira saihestu, ez soilik ekonomiaren arloan. Trantsizio energetikoak atsegina izan behar du, eta izapide burokratiko azkarragoak eta sinpleagoak izan behar ditu, helburu komunitarioak lortzeagatik enpresen lehiakortasunari kalterik eragin gabe. Gure sektoreei lagundu behar diegu trantsizio horrek eskaintzen dituen aukerak identifikatzeko orduan, arlo ekonomikoan, enpleguaren sorkuntzan eta lehiakortasunean.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

- Energia-politiken plangintza.
- Trantsizio energetikorako proiektuak lantzea.
- EAEko ikerkuntza energetikorako estrategian sakontzea.
- Bidezko trantsizio energetikoa.

4.2.2. Ingurumena

Ingurumenaren babes-politikak XXI. mendeko legegintza- eta betearazpen-lanen funtsezko pieza bihurtu dira. Ingurumena zaintzea eta klima-alaketaren aurkako borroka mundu osoko kezka

nagusienen artean daude eta herrialde guztien agenda politikoan daude.

Ahalegin horren ondorioz, hobetu egin dira ingurumen-adierazle nagusiak, bai uraren kalitateari dagokionez, bai lurzorua eta airearen kalitateari dagokionez. Halaber, biodibertsitatearen defentsan eta errespetuan ere egin da aurrera. 2030era begira, eta garapen jasangarrirako helburuekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarraren laguntzarekin, EAEn gai nagusi gisa kokatu zuen klima-aldaketa, Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenaren ondoren.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

- Ingurumenaren defentsarako eta balio ekologikoen sustapenerako ingurumen-politika aurreratu eta berritzailea bultzatzea.
- Biodibertsitatearen defentsa sustatzea.

4.2.3. Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularra funtsezko elementua da lehengaien kontsumoa murrizteko eta klima-aldaketaaren aurka borrokatzeko, eta, beraz, arriskuak apaltzeaz gain, gure ehun ekonomikoa indartzeko aukerak sortzeko ere balio du. Beraz, enpresetan zirkulartasun-tresnak aplikatzea funtsezkoa da haien lehiakortasuna hobetzeko, klima-aldaketaarekin lotutako CO₂ emisioak murrizteko eta zabortegetan uzten diren hondakinak murrizteko.

Azken urteotan, EAEk aurrerapauso handiak eman ditu arlo honetan, 2030eko Ekonomia Zirkularraren Estrategia, 2021-2024 aldiko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana eta bestelako mugarriak, Basque Ecodesign Centre edo Basque Circular Hub, esaterako. EAEko 400 enpresa baino gehiago, % 80 ETEak, praktika edo eredu zirkularrak aplikatzen ari dira dagoeneko.

Lehengaiak kontsumitzetik eta emisioak sortzetik bereizitako garapen eta hazkunde ekonomikoaren eredu sinesten dugu, berritzaileagoa, lehiakorragoa eta jasangarriagoa da eta; eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta gehien maximizatzea ahalbidetzen du, ekoizpen-zikloan ahalik eta denbora gehien irauteko eta hondakinen sorkuntza murrizteko.

Helburua da ekonomia zirkularraren eredu berri hau —lan berdeak eta berrikuntza— sustatzeko martxan jarritako tresnak ezartzea eta zabaltzea, eta horrek EAEn lehiakortasuna eta hazkunde jasangarria hobetzea ekarriko du.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

- Enplegu berdea eta berrikuntza garatzea ekonomia zirkularraren eremuan.
- Hondakinak murriztea eta horien birziklapena eta balorizazioa areagotzea.

5.- Sailburuordetzei dagozkien dirulaguntza-programen laburpena.

Honako hauek dira agindu honen eranskinean jasota dauden dirulaguntza-lerroak:

5.1.- Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza

5.1.1.- Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza

5.1.1.1.- HAZITEK, enpresetan I+Ga bultzatzeko programa

5.1.1.2.- ELKARTEK, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa

5.1.1.3.- AZPITEK, ikerketa-azpiegiturei laguntzeko programa

5.1.1.4.- BIKAINTEK, I+G proiektuetarako talentua kontratatzen laguntzeko programa

5.1.1.5.- EMAITEK Industria Hobe, foku anitzeko teknologia-zentroen jarduera ez-ekonomikoari laguntzeko programa

5.1.1.6.- ESS – BILBAO EUROPEAN SPALLATION SOURCE BILBAO finantzatzeko laguntza

5.1.1.7.- Donostia International Physics Center finantzatzeko laguntza

5.1.1.8.- Basque Research and Technology Alliance (BRTA) – Euskal Partzuergo Zientifiko-teknologikoa finantzatzeko laguntza

5.1.1.9.- Dirulaguntza izenduna/zuzenekoa EUSKORPUS proiektuari

5.1.1.10.- Dirulaguntza izenduna/zuzenekoa H2 Teknologia / Eolikoa Ikertzeko Nazioarteko Lankidetzaren Programari

5.1.1.11.- ELHUYAR (Teknopolis)

5.1.1.12.- Euskalit. Kudeaketa aurreratuaren ezarpena sustatzea

5.1.1.13.- Innobasque – Berrikuntzaren Sustapena

5.1.1.14.- FABRIKA FUNDAZIOA – Enpresa-kultura berri baten ekimena

5.2.- Industria Sustatzeko Sailburuordetza

5.2.1.- Garapenaren eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza

5.2.1.1.- GAUZATU INDUSTRIA programa

5.2.1.2.- BIDERATU BERRIA programa

5.2.1.3.- INDARTU programa

5.2.1.4.- Dirulaguntza izenduna FESTIVAL INTERNACIONAL CINE SAN SEBASTIÁN SAr

5.2.1.5.- Dirulaguntza izenduna CONFEBASKi

5.2.1.6.- Dirulaguntza izenduna CEBEKi

5.2.1.7.- Dirulaguntza izenduna ADEGIri

5.2.1.8.- Dirulaguntza izenduna SEAr

5.2.1.9.- EAEko klusterrak dinamizatzen dituzten antolakundeei laguntzeko programa

5.2.1.10.- Dirulaguntza izendunak bertan behera utzitako meatze-egiturak segurtasunean jartzeko

5.2.2.- Ekintzailletza eta Nazioartekotzearen Zuzendaritza

5.2.2.1.- Dirulaguntza izenduna ELKARGIri

5.3.- Trantsizio Energetikoko Sailburuordetza

5.3.1.- Deskarbonizazio Zuzendaritza

5.3.1.1.- DESKARBONIZAZIOA INDUSTRIAN programa

5.3.1.2.- Instalazio zaharretan lur-hargunea instalatzeko laguntzak

5.3.2.- Ekonomia Zirkularren Zuzendaritza

5.3.2.1.- Ekonomia zirkularreko berrikuntza-proiektuetarako laguntzak

5.4.- Ingurumen Sailburuordetza

5.4.1.- Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

5.4.1.1.- Dirulaguntzak enpresei, ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten

5.4.2.- Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza

5.4.2.1.- Dirulaguntzak natura-ondarea babesteari buruzko ezagutzak sortzeko proiektuak egiten dituzten entitate pribatuei

5.4.2.2.- Plentziako Itsas Estazioa (PIE) EHU. Hondartzeak

5.4.2.3.- Hitzarmena Aranzadirekin. Natura-ondarearen ezagutza eta kontserbazioa hobetzeko jarduerak

5.4.2.4.- Europarc-Espainiarekin hitzarmena, eremu babestuak hobetzeko

5.4.2.5.- Dirulaguntza Geogarapeni (Zumaiako Geoparkea, ingurumen-jarduerak)

- 5.4.2.6.- Azpeitiko Udalarekin hitzarmena, Azpeitiko Ekoetxea kudeatzeko
- 5.4.2.7.- Baso-konpentsazioak Urdaibaiko EKPZaren aplikazioz
- 5.4.2.8.- BC3 Basque Centre for Climate Change elkarte, klima-aldaketa buruzko ikerketa, dibulgazioa eta prestakuntza sustatzeko
- 5.4.2.9.- Dirulaguntza EHU UNESCO Katedrari, garapen jasangarrirako eta ingurumen-hezkuntzarako
- 5.4.2.10.- Dirulaguntza UN ETXEari
- 5.4.2.11.- Dirulaguntza Añanako Gatz Harana Fundazioari, Añanako Gatz Haraneko jardueretarako
- 5.4.2.12.- Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udalentsako dirulaguntzak
- 5.4.2.13.- Udalentsako dirulaguntzak: Eskolako Agenda 21 ildoak
- 5.4.2.14.- Udalentsako dirulaguntzak: Jasangarritasunerako hezkuntza-jarduketak
- 5.4.2.15.- Asteklima: «Tokiko eremuan jarduerak sustatzea, herritarrak klima-aldaketa arloan ekintzara mobilizatzeko»
- 5.4.2.16.- US2030 Tokiko Berrikuntza Proiektuak
- 5.4.2.17.- Bizkaiko Kofradien Federazioa – Itsas Zaborrak
- 5.4.2.18.- Gipuzkoako Kofradien Federazioa – Itsas Zaborrak
- 5.4.2.19.- Data For Science Fundazioa – Itsas Zaborrak
- 5.4.2.20.- Dirulaguntzak ingurumen-hezkuntzaren arloan herritarrei zuzendutako trebakuntza- eta prestakuntza-ekintzak, -ikastaroak eta -jarduerak garatzen dituzten ikastetxe, entitate eta antolakundeei
- 5.4.2.21.- Dirulaguntzak familiei, hirugarren adinekoei, gazteei eta, oro har, herritarrei zuzendutako klima-aldaketa erronkekin lotutako proiektuak garatzen dituzten zentro, entitate eta antolakundeei
- 5.4.2.22.- Dirulaguntzak ingurumen-babes, -leheneratze eta -hobekuntzan herritarrak gaitzearekin eta ahalduztzearekin lotutako ideia berritzaileak garatzen dituzten entitateei eta pertsona fisikoei
- 5.4.2.23.- Klima-aldaketa arloko zientzia herritarra
- 5.4.2.24.- Hitzarmena Global Action Plan sarearekin, Sare Berdeak kanpainan ingurumen-zabalkundeko eta -hezkuntzako lanak egiteko
- 5.4.2.25.- ITSAS GELA, itsas ingurune ingurumen-hezkuntzako ekintzak onartzeko
- 5.4.2.26.- AZTI, aholkularitza-jarduerak sustatzeko, Europako itsas estrategiaren esparru-zuzentarauaren hirugarren zikloari, itsas eremuaren antolamenduari eta itsasertzeko klima-aldaketa egokitzeari dagokionez.

5.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila.

5.1.- Teknologia, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza.

5.1.1.- Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza.

5.1.1.1. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoak: Berrikuntza eta Digitalizazioa eta Adimen Artifiziala
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia, 5414 Berrikuntza Funtza eta 5415 Eraldaketa digitala eta Ekintzailatza Berritzailea
Dirulaguntza-lerroa: HAZITEK, enpresetan I+Ga bultzatzen laguntzeko programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua(k): ENPRESEN I+G+B BULTZATZEA, LEHIAKORTASUN-FAKTORE GISA Ekintza: HAZITEK programa	2025	2026	2027	2028
Adierazleak:				
• Aurkeztutako proiektu lehiakorak	850	890	920	940
• Lagundutako proiektu lehiakorak	600	630	650	665
• Proiektu lehiakorretan aurkeztutako enpresak	875	895	920	930
• Proiektu lehiakorretan lagundutako enpresak	650	660	670	680
• Aurkeztutako proiektu estrategikoak	45	46	48	50
• Lagundutako proiektu estrategikoak	32	34	36	38
• Proiektu estrategikoetan aurkeztutako enpresak	225	230	235	240
• Proiektu estrategikoetan lagundutako enpresak	180	185	190	195
• Aurkeztutako aurrekontua, guztira	545 milioi euro	575 milioi euro	610 milioi euro	645 milioi euro
• Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa)	275 milioi euro	290 milioi euro	307 milioi euro	325 milioi euro
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua - Hazitek Estrategikoak	50.000.000	53.000.000	56.180.000	59.550.800
VII. aurrekontu-kapitulua - Hazitek Lehiakorak	43.000.000	45.580.000	50.740.000	53.784.400

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Enpresak: handiak eta ETEak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura, diruz lagundutako proiektu mota bakoitzarentzat
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Betekizuna: 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, berdintasun-plan bat indarrean izatea eta jazarpenaren aurkako prebentzio-neurriak izatea. I+G+B proiektuak aukeratzeko. Gako-irizpidea: taldearen oreka eta gaitasuna. Betetze-mailaren balorazioa: proiektuko buruzagitza eta taldearen egokitasuna, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua balioetsita. Ebaluazio Batzordeetan gizon eta emakumeen presentzia orekatua bermatzea.

5.1.1.2. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza eta Digitalizazioa eta Adimen Artifiziala
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa
Dirulaguntza-lerroa: ELKARTEK, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerkuntza babesteko programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: ESKAINTZA TEKNOLOGIKOA INDARTZEA ETA TRANSFERENTZIARA BIDERATZEA	2025	2026	2027	2028
Ekintza: ELKARTEK programa				
Adierazleak:				
• Arlo estrategikoetan aurkeztutako lankidetzaproiektuak	75	77	78	80
• Arlo estrategikoetan lagundutako lankidetzaproiektuak	35	36	36	38
• Lagundutako industria-potentzial handikoproiektuak	10	12	12	14
• Lagundutako industria-potentzial handikoproiektuak	6	8	8	10
• Lagundutako interes bereziko ekintzak	65	67	69	70
• Lagundutako ZTBESeko eragileak	135 milioi euro	138 milioi euro	142 milioi euro	145 milioi euro
• Aurkeztutako aurrekontua, guztira	48 milioi euro	50 milioi euro	53 milioi euro	56 milioi euro
• Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa)				
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua	47.000.000	49.820.000	52.809.200	55.977.752

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	ZTBESeko eragileak. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura, diruz lagundutako proiektu mota bakoitzarentzat
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Betekizuna: indarrean dagoen araudiaren arabera berdintasun-plan bat izatea. I+G+B proiektuak aukeratzeko irizpide orokorra: proiektuko buruzagitza eta taldearen egokitasuna, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua balioetsita. Hau da, lau kide baino gehiagoko taldeetan sexu bakoitzeko pertsonak gutxienez % 40 direnean. Gainerako kasuetan, bi sexuetako pertsonak ordezkaturik daudenean.

5.1.1.3. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: AZPITEK, ikerketa-azpiegiturei laguntzeko programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: ESKAINTZA TEKNOLOGIKOA INDARTZEA ETA TRANSFERENTZIARA BIDERATZEA	2025	2026	2027	2028
Ekintza: AZPITEK programa				
Adierazleak: • Aurkeztutako proiektuak • Lagundutako proiektuak • Aurkeztutako aurrekontua • Onartutako aurrekontua (eragindako inbertsioa)	30 15 16 milioi euro 10 milioi euro	32 16 17 milioi euro 11 milioi euro	33 18 19 milioi euro 12 milioi euro	34 20 20 milioi euro 12 milioi euro
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua	9.000.000	9.500.000	10.100.000	10.700.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	ZTBESeko Foku Anitzeko Zentro Teknologikoak. Irabazi-asmorik gabeko entitateak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Irizpide orokorrak. Lantaldea: positiboki baloratuko da gizonen eta emakumeen osaera parekidea izatea ikerketa-taldean.

5.1.1.4. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa
Dirulaguntza-lerroa: BIKAINTEK, I+G proiektuetarako talentua kontratatzen laguntzeko programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: ENPRESEN I+G+B BULTZATZEA, LEHIAKORTASUN-FAKTORE GISA	2025	2026	2027	2028
Ekintza: BIKAINTEK programa				
Adierazleak:				
• Lagundutako proiektuak (doktoreen kontratazioak)	50	52	54	55
• Doktoreak kontratatu dituzten lagundutako enpresak	35	36	38	40
• Doktoreak kontratatu dituzten lagundutako ZTBESeko eragileak	5	7	8	8
• Kontratututako emakumeak	25	26	27	28
• Kontratututako gizonak	25	26	27	27
• Industria-doktoregoak egiteko lagundutako proiektuak	35	36	38	40
• Industria-doktoregoak egiteko lagundutako enpresak	15	17	18	19
• Industria-doktoregoak egiteko lagundutako ZTBESeko eragileak	6	7	8	10
• Industria-tesiak egiten ari diren emakumeak	18	18	19	20
• Industria-tesiak egiten ari diren gizonak	17	18	19	20
• Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa)	8 milioi euro	9 milioi euro	10 milioi euro	12 milioi euro
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua	5.719.687	6.062.870	6.426.640	6.812.240

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	ENPRESAK eta ZTBESeko eragileak: Enpresetako I+G Unitateak, foku anitzeko teknologia-zentroak eta ikerkuntza kooperatiboko zentroak. Irabazi-asmorik gabeko entitateak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Betekizuna: indarrean dagoen araudiaren arabera berdintasun-plan bat izatea, eta ordainsari-berdintasunari buruzkoa betetzea. Irizpideak: E.- Proiektuaren eragin sozioekonomikoaren eta ingurumen-eraginaren balorazioa. E.4.- Aurrerapenak genero-alderdietan.

5.1.1.5. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtza
Dirulaguntza-lerroa: EMAITEK Industria Hobe, foku anitzeko teknologia-zentroen jardura ez-ekonomikoari laguntzeko programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: ESKAINTZA TEKNOLOGIKOA INDARTZEA ETA TRANSFERENTZIARA BIDERATZEA	2025	2026	2027	2028
Ekintza: Industria Hobe – EMAITEK Programa				
Adierazleak: • Lagundutako zentroen kopurua	11	11	11	11
• Lagundutako zentroetako aginte taularen batez besteko betetze-maila	92,29	92,50	93,00	93,50
• Argitalpen zientifikoaren kopurua	1.355	1.370	1.375	1.390
• Eskatutako patenteen kopurua	132	135	138	140
• Azken 5 urteetan sortutako <i>start up</i> -en fakturazioa	18,5 milioi euro	18,8 milioi euro	19,0 milioi euro	19,5 milioi euro
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua	58.587.783	61.103.000	64.830.000	68.720.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	ZTBESeko foku anitzeko teknologia-zentroak. Irabazi-asmorik gabeko entitateak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura, betetze-mailaren arabera
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Betekizuna: indarrean dagoen legeriaren arabera berdintasun-plan bat izatea.

5.1.1.6. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: ESS – BILBAO EUROPEAN SPALLATION SOURCE BILBAO finantzatzeko laguntza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: INGURUNEKO BALDINTZAK KOORDINATZEA ETA GARATZEA	2025	2026	2027	2028
Ekintza: Proiektu bereziak. BILBAO EUROPEAN SPALLATION SOURCE BILBAO				
Adierazleak: • Kudeaketa-organoetako parte-hartze kopurua (Batzarraren bilerak)	2	2	2	2
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua	907.184	686.388	686.388	-

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	ESS – BILBAO EUROPEAN SPALLATION SOURCE BILBAO entitatea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lankidetzeta-hitzarmena Estatuko Administrazio Orokorrarekin, ESS Bilbao finantzatzeko
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.1.1.7. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: Donostia International Physics Center finantzatzeko laguntza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: INGURUNeko BALDINTZAK KOORDINATZEA ETA GARATZEA	2025	2026	2027	2028
Ekintza: Proiektu bereziak. Donostia International Physic Center				
Adierazleak: • Kudeaketa-organoetako parte-hartze kopurua (Batzarraren bilerak)	2	2	2	2
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
IV. aurrekontu-kapitulua	420.000	420.000	420.000	420.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Donostia International Physics Center
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lankidetza-hitzarmenak entitate fundatzaileekin
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.1.1.8. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: Basque Research and Technology Alliance (BRTA) – Euskal Partzuergo Zientifiko-teknologikoa finantzatzeko laguntza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: INGURUNEKO BALDINTZAK KOORDINATZEA ETA GARATZEA Ekintza: Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Adierazleak: • Kudeaketa-organoetako parte-hartze kopurua (Zuzendaritza Batzordearen eta Batzarraren bilerak)	2025 8	2026 8	2027 8	2028 8
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
IV. aurrekontu-kapitulua	425.000	500.000	500.000	500.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoa – Basque Research and Technology Alliance (BRTA). ZTBESeko eragileak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lankidetzeta-hitzarmenak entitate fundatzaileekin
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.1.1.9. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: Dirulaguntza izenduna/zuzenekoa EUSKORPUS proiektuari

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: INGURUNeko BALDINTZAK KOORDINATZEA ETA GARATZEA Ekintza: Proiektu bereziak. EUSKORPUS proiektua Adierazleak:	2025	2026	2027	2028
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua	5.000.000	-	-	-

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Euskararen corpusaren garapenean inplikaturako entitateak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lankidetzak-hitzarmena Estatuko Administrazio Orokorrekin, Euskorpus proiektua garatzeko
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.1.1.10. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: Dirulaguntza izenduna/zuzenekoa H2 Teknologia / Eolikoa Ikertzeko Nazioarteko Lankidetzeta Programari

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: INGURUNeko BALDINTZAK KOORDINATZEA ETA GARATZEA Ekintza: Proiektu bereziak. H2 teknologia / Eolikoa ikertzeko nazioarteko kooperazioa Adierazleak:	2025	2026	2027	2028
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua	3.500.000	-	-	-

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Hidrogenoaren eta eolikoaren arloko entitateak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna/Zuzenekoa
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.1.1.11. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: ELHUYAR (Teknopolis)

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza EAEn zabaltzea Ekintza: TEKNOPOLIS programa finantzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan I+G+B hedatzeko, eta telebistan eta beste kanal batzuetan zabaltzeko. Adierazleak: egindako programen kopurua (34-36 programa urtean, ETBn emititzeko erabilgarri dauden asteburuen arabera)	2025	2026	2027	2028
	35	35	35	35
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
IV. aurrekontu-kapitulua	350.000	350.000	350.000	350.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Dirulaguntza ELHUYAR FUNDAZIOAri, «Teknopolis» programa egiteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko publikoari hedatzeko
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	«Teknopolis» programaren programazioan genero-berdintasunaren helburuak jasotzen dira.

5.1.1.12. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 7214 Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia
Dirulaguntza-lerroa: Euskalit. Kudeaketa aurreratuaren ezarpena sustatzea

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua(k): Berrikuntza bultzatzea, EAEko industria-sarea osatzen duten enpresetan Kudeaketa Aurreratua sustatuz Ekintza: enpresa-lehiakortasuna sustatzea kudeaketa aurreratuaren sustapenaren bidez. Adierazleak: • Mobilizatutako enpresak (industrialak eta horiei lotutakoak) • Kudeabiden egindako kontrasteen kopurua	2025	2026	2027	2028
	560	560	560	560
	210	220	220	220
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.				
	2025	2026	2027	2028
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
IV. aurrekontu-kapitulua	950.000	950.000	950.000	950.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	EAEko industria-ehuneko enpresak: industria-sektorekoak eta jarduera operatiboei, laguntzakoiei eta kudeaketakoiei lotutako zerbitzuetakoak, funtsean industria-sektorerantz itzultzen direnak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Urteko jarduketa-programan hauek sartzen dira: 1) Enpresetan berdintasuna kudeatzeko prestakuntza-eskaintza; 2) Enpresetan berdintasuna kudeatzearekin lotutako hedapen-jardunaldiak eta ekintzak.

5.1.1.13. Ardatz estrategikoa: hazkuntza- eta ongizate-eredua

Helburu estrategikoa: Berrikuntza
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 7214 Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia
Dirulaguntza-lerroa: Innobasque-Berrikuntzaren Sustapena

Helburuak, ekintzak eta adierazleak				
Helburua(k): EAEko industria-sareko enpresa txikietan berrikuntza sustatzea Ekintza: Innobasquerekin elkarlanean aritzea, Hazinnova laguntza-programa sustatzeko eta Hazinnova eragile-sarea dinamizatzeko Adierazleak: • Urtero Hazinnovan parte hartzeko mobilizatutako enpresen kopurua, guztira. • Urtero Hazinnovan parte hartzeko mobilizatutako enpresa berrien kopurua.	2025	2026	2027	2028
	400	400	400	400
	200	200	200	200
